



MITXELENA, Koldo

Gure artean. Artikulu bilduma/Entre nosotros. Artículos seleccionados
Irún : Alberdania, 2001. – 503 p. ; 24 cm. – ISBN: 84-95589-28-1



MITXELENA, Koldo

Historia de la literatura vasca

Donostia : Erein, 2001. – 173 p. ; 23 cm. – ISBN: 84-7568-580-3

IBARZABAL, Eugenio

Koldo Mitxelena

Donostia : Erein, 2001. – 189 p. : il. ; 23cm. – ISBN: 84-7568-266-9

Leialtasun baten kronika

Koldo Mitxelenarekin zerikusia duten hiru liburu interesgarri kaleratu ziren 2001. urtean. Batetik, publiko zabalarentzat interesgarrienak izan zitezkeen lanen bilduma argitaratu zuen Alberdania etxeak gaztelaniaz eta euskaraz: *Mitxelena gure artean*

– *Mitxelena entre nosotros*. Testuen hautamena eta liburua zuzentzeko ohorea izan nuen. Jorge Giménezena izan zen hautatutako testuak gaztelaniaz jartzearen ardura zaila. *Zaila* diot, ez baita txantxetako lana Koldo Mitxelenaren estilo zehatz eta aldi berean bihurtune askokoa beste hizkuntza batean behar bezala jasotzea.

Bestetik, aspalditik agortuta zeuden bi liburu argitaratu zituen Erein argitaletxeak: Eugenio Ibarzabalek hizkuntzalari handiari egin zion elkarriketa luze gogoangarria, *Koldo Mitxelena* tituluarekin; eta baita euskal literatura maite dugunontzat maitasun horren sehaska izan zen eta izaten jarraitzen duen liburu aparta ere: *Historia de la literatura vasca*.

Hiru liburu horien iruzkina egiteko eskatu didate RIEVeko arduradunek, baina hurbilegi sentitzen dut neure burua hiru liburu horietatik. Hargatik, hiru liburuen eta Koldo Mitxelenaren inguruko gogoeta izango da nire gaurkoa, eta ez aipatu liburuen kritika. Liburu batetik bestera eta Mitxelenaren pentsamendu batetik bestera doazen loturak, iruzkinak, gogoetak dira –tarteetan, han-hemenka idatziak ditudanen osaketak– ondoren datozenak. Glosez osatutako dietario baten forma eman diet. Kronista batek gertakari nagusiei buruz idatzitakoak biltzen omen ditu dietario batek. Pentsamenduak ere gertakari moduan har daitezke. Ez ditut, ordea, pentsamenduak deskribatuko eta argituko akademiko baten gisa; egitekotan ere, Mitxelenaren ertz zorrotzak ulertzeko baliatu nahi nituzke hemendik aurrerako hostoak. “Dietario bat idazten dugunok –dio Pere Gimferrer poetak– badakigu lan honek arriskua eta anbigutasuna, sedukzioa eta etsipena dakartzala; literatura guztiak bezala. Edo bizitzak berak ere bezala”.

“GU” BATEN KATEBEGI.- Taldean, besteen ondoan, garatzen da gizabanako bakoitzaren autonomia: balio-sare bera edo beretsua duen hainbat gizabanakorekiko loturak, kontraesanek eta hausturek osatzen dute gutariko bakoitzaren nortasun politikoa. Ni besteekin, elkarrekin nonbait eta nolabait bizitzeko, eta nonbaitetik norabait elkarrekin joateko edo atzera ez jotzeko; baita puntu jakin batetik aurrera ez abenturatzeko ere; edo puntu jakin batetik aurrerako ekimenen aurka borrokatzeko; edo, une historiko jakin batean bidez aldatu, eta egokiagoa ikusten den bati ekiteko. Horrelako uneen, aukeren eta erabakien kontakizuna da, hain zuzen ere, herri baten historia. Itun isilak dira batzuek, agerikoak beste hainbat, baina hitzarmen horietan egituratzen da elkarbizitza.

GU: horrela hitz egiten ari denak kolektibo baten zentzua du, kolektibo baten partaide da ez dago kolektibotasunik nork bere burua inplikatu gabe. Ni erantzule eta duin askok GU erantzule eta duina osatzen dute, ezin baita aipatu herriaren duintasunik, ez baldin banaiz saiatzen herritar duina izaten. Gainerakoan, kolektibotasuna lainoa da, zehaztu gabeko zera etereo bat, gure erantzukizuna estaltzen duen multzo lanbrotzua, erantzukizunik gabeko GU lasai baten barruan nire erantzukizuna ezkutatzeko iruzurra.

Eugenio Ibarzabalen liburua irakurtzen duenak berehala nabarmenduko du: demokraziaren oso zentzu errota zuen Koldo Mitxelenak egiten zuen guztian. Demokraziaren etengabeko ispilua da, adibidez, euskara batuaren prozesu osoan eraman zuen jarrera: bera zen, beste inoren gainetik, hizkuntza gaietan aditua, baina batuarena ez zen arazo zientifiko soila: bazen politikoa ere, herriaren etorkizuna markatuko zuena. Hain kasu korapilatsuan, Mitxelena herritarrak GU esaten jakin zuen.

Koldo Mitxelena herritarrak kate-begia naizela erakusten dit. Kate-begia naiz iragaren eta etorkizunaren artean. Ez gehiago; ezta gutxiago ere. Eta kate-begia naizen neurrian, lotura egin behar dut, uztartu egin behar ditut lehena eta geroa, zubia izan

behar dut bien artean, jasotakoa aberastuta transmititzen saiatu behar dut. Mitxelenak ez zituen herrigintza, jakintza edo hizkuntza dinamikarik gabeko arau multzo gisa ulerzen. Demagun hizkuntza, berak hain ondo ezagutzen zuen eremu mugagabe hori: tradizioa gutxi bezala ezagutzen bazuen ere, erabilera, hiztunen jardunak eta aurrerabidea zituen kontutan eta talentuak bezala ugaritu nahi zuen jasotakoa. Demagun jakintza, Mitxelena hainbat obsesionatzen zuen alorra: Europako kulturari lotuta ikusten zuen bere jarduna: denontzat sortzen dugu, edo ez dugu inorentzat sortzen...". Demagun herrigintza, bere izaera konprometituak inoiz baztertu ez zuena: eraiki egin nahi zuen, eta ez suntsitu. Aipatu alorretan eta aipatu gabeko hainbatetan GU hori, giza talde jakin bateko partaide izatearen kontzientzia nagusitzen zaio beti Mitxelenari.

Gutziz barneraturik dauka, bere portaera guztia markatzeraino, kate-begi bat dela, ez gehiago; baina ezta gutxiago ere. Historia luze baten kate-begi izaki, adanismoaren batere arrastorik gabeko talaia batetik begiratzen du bai atzera eta bai aurrera, jasotako talentuak bere *hastean eta garbian* iraunarazi ordez, ugaritu eta geroari eskaini nahi baitizkio.

LEIALTASUN BATEN BIOGRAFIA.- Koldo Mitxelena herritarraren bizitza leialtasunaren biografia bat da. Lehenik eta behin, giza kondizioarekin da leiala: ahulenekin, gehien sufrizten dutenekin, biktimekin da leiala, inoiz hitz eder askoekin idatzita utzi zuen bezala. Gizakia eta giza balioak gainontzeko balio guztien gainetik jartzen dituen pertsona da Koldo Mitxelena. Baina gizakiarekin leial izateak bere herriarekin leial izatera darama, eta bere herriarekiko leialtasunak ezin bestez eskatzen dio bere hizkuntzarekiko leialtasuna. Areago: leial izateaz ari zaigu Koldo Mitxelena, baina ez leial izateko modu bakar eta jakin batez. Koldo Mitxelenak ez dit esaten "modu honetan izan behar duk leial", hori nire erabakia baita. Ez dit esaten leial izateko modu bakarra dagoela: "heure buruarekin leiala izateko, leialtasunez bilatu behar duk heure bidea", hori da Koldo Mitxelena behin eta berriro esaten ari zaidana.

Leialtasunaz ari naiz, eta Koldo Mitxelena herritarrak zein ikerlariak erakusten didan beste kontu bat zera da: leialtasunak azpikeria ukatzen du. Mitxelenak ezer gorrotatzen bazuen, azpikeria zen hori, bai bizitza normalean bai harreman intelektualean ere. Oso garbi ikusten den kontua da *Gure artean* liburuko hainbat artikuluetan eta Ibarzabalek egindako elkarrizketan. Ezin zituen karta markatuak eraman. Eztabaidatzerakoan, beti erakusten zuen, inolako azpilik gabe, bere talaia. Haren testuen irakurleak badaki non dagoen, zer duen abiapuntu, zer duen bide eta helburu. Tranparik eta iruzurrik gabe. Horregatik, iruzur egiten zitzaionean edo debatearen arauak trukatzan zitzaizkionean, gasolina bota berri zaion suak bezala egiten zuen zapart eta eztanda.

JAKIN-MINA.- Torrelavegako institutuan kimika ez beste guztia irakatsi omen zuen Mitxelenak, eta, bere idazkietan ikusten den bezala, berebiziko garrantzia ematen dio jakintzari eta aktibitate intelektualari bai gizakiaren bai herriaren garapenerako. "Gizona gizon denetik galderak egiten" ari baldin bada, gizakiak ezin dio bizkarra erakutsi bere-berea duen aktibitate horri. Baina, horretarako, espiritua hezi behar.

Gure gaurko garaiotan guztiz galduta dagoen heziketa jasotako gizona izaki, Mitxelenarentzat gizakiaren kezka intelektual oro zen jakingarri, ez zegoen zientzia arloko deus Mitxelena indiferente utziko zuenik. Gauzak ulertzen saiatzetik eta adimenaren eremuetatik datozen emozioengan sinesten zuena genuen Mitxelena.

IDAZLE.- Nire belaunaldiko idazle askok badugu zorrik, eta ez nolana hikorik, Mitxelena idazlearekin. Niri dagokidanez, haren *Literaturaren historia* eta euskararen inguruko beste hainbat lan aipa ditzaket. Aipa dezaket, nola ez, euskara batua eta euskararen batasunak idazleoi eta irakurleoi oparitu digun plaza berria, orain urte

gutxi ez genuena. Baina asko aipatu den eta gutxi aztertu dugun beste alor bati erreparatu nahi nioke: Mitxelena saiolariaren estiloari. Euskaraz prosa idatzi nahi duen orok, eta, batez ere, saio zientifiko zein literarioa egin nahi duen orok ezin bestekoa du Mitxelenaren ekarria. Puntu bakar baten aldeko apustua egin beharko banu, kontraesan bezala dirudien gorabehera bikoitz bat azpimarratuko nuke: zorroztasuna eta digresiorako erakusten duen abilezia. Den-dena ondo lotuta eta zehatz agertzea gustatu izanagatik, ez ditu digresioak –diskurtsuoen bidera irteten zaizkion galeper lotsagabe horiek– baztertzin: ari zara Mitxelenaren testu bat irakurtzen eta, halako batean, badirudi Mitxelenaren arreta galdu egin dela testuaren bidera atera zaion galeper baten atzetik, badirudi burura etorri zaion ideia berri halako batek itsutu egin duela, baina halako batean, uste ez duzunean eta modu natural batez, diskurtsora itzultzen da Mitxelena. Hortik dator, agian, Mitxelenaren testu barneko antolamenduak inoiz ematen duen itxura alderraia. Halatan ere, testu barneko antolamendua eta diskurtsora bildutako oihartzun barreiatu horiek –idazterakoan bururatzen zitzaizkionak– testu nagusiaren *continuum* batean integratzen zituen, eta horrek halako marka berezia ematen dio Mitxelenaren estiloari. Gaztagileak esnea irabiatzerakoan malatxa nola, Mitxelenak hala zeuzkan, beti irabiaka, buruko garunak.

Irakaslea zen eta, agian, irakasle izateak argituko luke jokabide hori. Ez dakit. Bada asko dakien jendea, baina dakiena erlazionatzen asmatzen ez duena. Koldo Mitxelenak, asko jakiteaz gainera, gaiak eta motiboak erlazionatzen zekien –askotan kontu harrigarrienak– eta erlazio horietatik gorabehera berriak sortzen.

Bere estiloa horrelakoxea da, erlaziozkoa, bai gaiari dagokionez, baita formalki ere. Baina, horrekin batera eta guttiz horren kontrapuntuan, esaera, maxima, aforismo, sententziak osatzeko abilezia sekulakoa du: hitz gutxienekin ahalik gehien esateko dohain zoragarri hori, hitzen ekonomia handienarekin pentsamendua zehazteko eta kondentsatzeko abilezia.

“Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: hizkuntzak ez du deus barrenen eta zernahi izan dezake”: horra bere maisutasunaren neurria ematen duen aforismo bat.

Maisuki idazten zuen Mitxelenak euskaraz zein gaztelaniaz. Baina euskal idazle naizen aldetik, euskarazko estiloari erreparatzen badiot, darabilen euskararen maisutasuna azpimarratu behar dut, hausnarketa literarioa egin nahi duen orok erreferentziatza hartu beharko lukeen erredua. Zehatza, esan beharrekoa hitz ahalik gutxienekin esaten dakiena, zorrotza, esaldiaren erritmoari begiratzen dakiena. *Le style est l'homme même*: Mitxelenarenean, modu paregabez.

ELKARBIZITZAREN HAUSPO.– “Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, gure hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntzen artean; handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela ez gaitzela ghetuaren ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezein bezain beharrezkoa dugu”, idatzi zuen Koldo Mitxelenak.

Eugenio Ibarzabalek egin zion elkarrizketan, berriz, beti zubi-lana egiten ibili izana onartzen du, izaera liberal batean oinarritutako ahalegin baterakoia: “Uste dut ahalegin erabatekoak egin ditudala nire baitan amildegirik zabal ez zedin. Baina arrangura sentitzen dut ikusita zer nolako urrutiramenduak sortzen ari diren gure artean”.

Mitxelenaren testuetan nabarmena da erantzukizun politikoaren kezka. Nabarmenagoa, ordea, printzipioekiko lotura, inoiz –ezta egoera latzenetan ere– ez ahazterainoko printzipioekiko sena errespetuzkoa. Une eta gertakari konkretuen aurrean hartu beharreko erabakiak baino, erabaki horiek oinarritzen eta arnasarazten

dituzten printzipioetan eta printzipio horiekiko leialtasunean aztertu behar da Mitxelenaren erantzukizun politikoa. Mitxelena gizartean da nor; historia baten haritik eta lokarrian da nor; tradizio baten bilakaera intelektualaren bidean da nor. Historiari eta historiari eskuetan jarri zionari zor ziona dago jokoan Mitxelenarentzat.

EUSKARAREN AUZIA, AUZI SOZIALA.- Mitxelenaren ustetan, euskararen arazoa ez da euskaldun kontua eta euskara duindu nahian ari direnen kontua bakarrik. Euskal Herrikoztat jotzen zuen Mitxelenak gure hizkuntzen arteko elkarbizitza. Denona da, edozein delarik ere gure ama-hizkuntza eta hizkuntz hautamena. Euskararen auziari bizkarra erakustea hizkuntzen arteko elkarbizitzari uko egitea da, ahulenaren bizitza txiriparen haize zakarren mende uztea. Arazoaz ezer jakin nahi ez izatea arazo gehien dituen hizkuntzaren aurkako jardutea da objektiboki.

Oso garbia da Mitxelenak erantzukizunei buruz zuen ustea: erantzukizun nagusia euskal gizarte osoarena eta euskararen lurraldea banaturik daukaten administrazio ugariena bada ere, estatu frantsesak eta espainiarrak badute egitekorik. Euskal kulturaren dimentsio eta bokazio unibertsala beste edozein hizkuntzena bezain unibertsala da. Begiramen, errespetu eta babes guztien eskubidea du. Horretarako, ordea, Mitxelenak aholku ematen zigun jokatzeko konplexurik gabe baina baita *handiakeriazko menturarik gabe* ere.

MITXELENAREKIN DUGUN ZORRA.- Gurea bezalako kultur eta herri borondate batek, bere ahotsa entzunarazteko zailtasunak zer-nolakoak diren ikusirik, bere burua baztertzeko joera du, aukera berdinek gabeko lehiaketa batean parte hartzera derrigortua baitago.

Mitxelenak zioen: "Euskara jakiteaz gainera, erdararen bat ikasia genuenez gero, gu izaten ginen, eta gu izaten gara orain ere, besterekin erdaraz mintzatzen garenak". Eta aurrerago, Euskal Herriak azken bi mila urtetan izandako balizko euskalduntasunaz ari delarik: "...horko erdaldunek bazuten laguntza bat horko euskaldunek ez zutena eta lehen esan dugun arrazoiagatik, alegia beti ahulagoak amore ematen diolako indartsuagoari, euskaldunok izan gara beti amore eman diegunak erdaldunei eta ez alderantziz".

Mitxelenaren hitzak eta lanak ez ziren, ordea, erresumindu batenak, garaiz esan gabeko egiei tokia egiteak zekarren onuraz sinesten zuen batenak baino.

Diodan horren guztiaren haritik, behar bezala eskertu ez diogun aitorten bat egin zuen Koldo Mitxelenak Salamankako unibertsitatea utzi eta Euskal Unibertsitatera irakasle gisa etorri zen garaian:

"Noraezekoa zen ia nik lehendabiziko dudan hizkuntza, haurretan bakarra izan ondoren, gogoko izatea. Ez da, beraz, harritzeko erabili badut eta oraindik ere erabiltzen, ozen nahiz motel, ahoz eta lumaz: horrexegatik beragatik guztiz pozkarri zait orain Unibertsitatean, irakaspide gisa erabili ahal izatea".

LITERATURAREN HISTORIA.- Gure literaturari buruzko material gutxi zuen Mitxelenak literaturaren historiari ekin zionean. Gutxi eta osotasun interpretatzailerik gabea. Halatsu zeuden azterketa historikoak ere: gure historia adabakika zegoen idatzita. Koldo Mitxelenak *Historia de la literatura vasca* idatzi zuenean ez zegoen ez euskal literaturari buruzko talaia osaturik, ezta euskal talaiatik egindako euskal historiari buruzko ikuspegi orokorrik ere: gure historia bere osotasunean hartuta eta gure historiaren aurpegiak (literatura, ekonomia, kultura, soziologia...) adabakika eta hutsune handiez osatuta zeuden.

Egoera horretan ekin zion Koldo Mitxelenak euskal literaturaren historia idazteari. Pionero baten moduan, bai literaturari zegozkion kontuetan, baita gure historiarekin egin beharreko loturetan ere.

Har dezadan periodizazioaren auzia esaten ari naizenaren lekukotzat. Mitxelenak ezagutzen zituen garaiko teoria literarioak eta ezagutzen zituen mugimendu literarioak ere. Bazekien testu bati *barroko* edo *erromantiko* deitzea ez dela nominalismo kontua, hitz horien atzean mundu-ikuskerak jakin bat dagoela, garaiko pentsamendu estetikoak gordetzen duen jarrera bat. Halaber, bazekien historia literarioaren garapena dinamiko dela, eta mundu-ikuskerak aldatzen den neurrian, forma ere aldatu egiten dela. Modu horretan ulertzen zuen Mitxelenak literaturaren historia.

Halatan, historia sailkatzeko garaian, Mitxelenak zeri egin behar zion jaramon? Irizpide sozio-historikoei soilik? Elkarrengandik aparte eta loturarik gabe azertu behar al zituen euskalkiak? Mendez mendeko eta euskalkiz euskalkiko banaketa akritikoari lotuko zitzaion, aurrekoek egin zuten bezala? Edo irizpide literarioa izango zuen kontutan, eta literaturaren historian *mugimendu* gisa ezagutzen ditugun fenomeno horiek osatuko zuten bere jardunaren hezurdura? Literaturaz zerbait dakienak ezagutzen du periodizazioaren garrantzia. Mitxelenaren historian, ordea, akritikoak diruditen mugak ageri dira: "Orígenes. Siglo XVI". "Siglo XVII". "De 1700 a 1850". "De 1850 hasta nuestros días". Horrela ikusita, badirudi Mitxelenak ez ziola segitu literaturaren historiaren barne logikari. Azaleko irudipena da, ez testuan zehar ageri dena. Jakin badaki euskal literaturaren periodizazioa eta Europako hizkuntz garatuenen literaturarena ez datozela bat. Baina, aldez ala moldez, beti ageri da periodizazioaren kezka Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* liburuan. Aski izango dira adibide batzuk diodana ulertzeko. Etxeparez ari delarik, non kokatu Eiheralarrekoa? Errenazimenduan? Mitxelenak dio: "No hay nada en su obra, salvo el entusiasmo por la imprenta (...) que sea propio del renacimiento". Axularri buruz, berriz: "que Axular conocía a fray Luis de Granada es seguro y seguro también que en dos pasajes, y probablemente en otros, le siguió de cerca". Ondoren, ordea, datu hori erlatibizatu egiten du, ez ironiarik gabe: "es evidente que, dentro de lo relativo de la originalidad humana en general, no pueda esperarse una gran originalidad en la doctrina de un libro ascético católico". Eta aurrerago: "No hay en Axular huellas de barroquismo".

Horrelako zehaztapenak, zorrotz eta esanguratsuak, egiten ditu etengabe, euskal idazlea eta idazlearen garaia uztartuz, bien arteko konparazioak eginez, euskal literatura Europako literaturaren ispiluan jarriz.

Ni nago Mitxelenak ezin zuela periodizazioari buruzko lan zehatzagorik burutu. Hala ere: berrogeitik gora urte pasatu dira Mitxelenak *Historia de la literatura vasca* idatzi zuenetik, eta orduetik gutxi aurreratu da periodizazioaren auzian.

LITERATURAREN IRAKURLE.- Euskal literaturaren ezagutzaile aparta zen, baina afizioz lehendabizi, ofizioz gero. Bere orduak eta nekeak hizkuntzalaritzari eskaini aurreko zaletasuna zuen euskal letrekikoa.

Literatur kritikari buruzko ikuspegi interes bizikoa ematen digu Jon Etxaideri buruzko artikulueta batean: "Neurri bakar batekin neur genezake gure artean sortzen den nobela bat: inguruko eta urrutiagoko hizkuntzetan sortzen diren nobelak gaur neurtzen diren harekin berarekin." Lizardiren *Biotz begietan* hizpide harturik, zera dio gure buruak euskaldun gisa ezagutzen lagunduko liguketan ispilu literarioez: "Ez dut nik esango, harrokeriaz mintzatzea litzateke eta, euskal arima zer-nolakoa den aditzera eman duenik [Lizardik]. Bai, ordea, adierazi duela zein den euskal ereduak,

euskaldunik gehienok, denok ez baldin bada, maite dugun ametsa, xamurtasunez eta ixiltasunez nahasia”.

Baina izen handiko lanez landa, arretaz segitzen zituen testu xumeenen nondik norakoak ere.

Erdal literaturetan, berriz, hurbilekoak zituen Erromako klasikoak, Virgilio eta Horazio batez ere. Espainiako urrezko aroari dagokionez, askotan aipatzen zuen *Kixotea*; egingo nuke ez zuela Gongora maite, ez baitzituen gehiegikeria estetikoak maite. Baina Quevedo maite zuen guztien gainetik eta bere ironia, askotan mingarria, ez dabil Quevedorenarenetik urruti. Erromantizismoari, berriz, ez dirudi begiramen handirik zionik. Poe, bai, estimatzen zuen, baina Poe errealismoaren atarian dago, Mitxelenak estimu handitan zuen literaturgintzaren atalasean: errealista frantsesak (Balzac, Stendhal) eta errusiarrek (Dostoiievski) zituen gogokoena.

MITXELENA ETA EUROPA.- Baina euskara eta euskal kultura ez dira irla, irautekotan Europan eta Europarekin iraungo dute. Etengabe ageri da kezka hori Eugenio Ibarzabalek egin zion elkarrizketa luzean.

Etxe barnean egindakoak ezin du etxean soilik gelditu: “denontzat sortzen dugu edo ez dugu inorentzat sortzen”, dio Mitxelenak, bere euskalduntasunaren talaia Europara begira baitzegoen. Irakurleak gure europartasunari buruzko hausnarketa bat baino gehiago aurkituko du haren lanetan:

“Ni behintzat ezin naiteke zalantzan hasi Europari buruz, nere sustrai guztiak Europan baititut. Europan kultura –berak sortutako nahiz besterengandik hartutako gaiez oratua– gu guztiona da, nerea ez ezik, nahi badugu eta ez badugu”. Eta segidan, euskaldunok Europan zer garenari buruz: “Gure berezitasuna ez da europartasunaren hezur-mamiei usai eta kolore berexi-antzekoa ematen dion larmintz mehea baizik”.

NOBELA BAT BEZALA.- Halaxe irakurtzen da Eugenio Ibarzabalek Koldo Mitxelenari egin zion elkarrizketa luzearen liburua: gertakariz gertakari tentsioa gordetzen dakien nobela bizkor arin baten moduan. Izan ere, Koldo Mitxelenak bizi behar izan zituenak ez ziren makalak izan: gerra-aurrea, gerra, kartzela, heriotza zigorra, kartzelatik irten ondorengo urte zailak, klandestinitateko ibilerak eta lanak... Garrantzi handia du euskararekin zer ikusia duen guztiak ere: ikasketak, bitzita akademikoa, ikerketa lanak, euskara batuaren auzia...

Pertsonaia handi bat ulertzeko eta maitatzeko balio du Eugenio Ibarzabalen liburua; baina baita garai zail bezain bizi eta kontraesan bezain ulertzeko ere.

GAURKOTASUNA.- Iruzkin-gai ditudan liburuetan ageri diren Mitxelenaren hizkuntzari eta gizarteari buruzko iritziek ez dute gaurkotasunik galdu, egun ere oraingotasun guztizkoak baitira unibertitateaz, euskarari buruz, ikerketaren premiaz, irakaskuntzaz edo hizkuntzen elkar bizitzaz idatzi zituenak. Areago ere esango nuke: herri honek berebiziko aurrerabidea egingo luke (hizkuntzen eta pertsonen elkarbizitzari dagokionaz ari naiz bereziki), baldin Mitxelenak orduan esaten zituenak presentegoko izango bagenu.

Inolako gaurkotasunik galdu ez duen hizkuntza eta herri ikuskera baten jabe da Koldo Mitxelenaren pentsamendua –lehenarekin lokarri, orainaren maisu, etorkizuneko bidaide–, eta bizitzen ari garen garai politiko honetan, inkomunikazioaren itzal luzeak elkarbizitza iluntzeko arriskua bizi dugunean, garrantzitsua iruditzen zait Mitxelenaren pentsamendua errebindikatzeko, eta ez, hain zuzen, liskarra hauspotzeko,

elkarbultzari buruzko debateak behar-beharrezkoa duen zentzuzko ikuspuntu garrantzitsu bat –Koldo Mitxelenaarena– ezagutarazteko: hain zuzen ere, oraindik euskal gizarteak eskain dezakeen zehatzena eta sakonena, ezbairik gabe eta ideologiak ideologia. Elkarbizitzak bultzatuta ikusten zuen hain garbi eta hain hil ala biziko euskara batuaren premia, eta, garaiko liskarren gaindi, denborak garbi erakutsi du batuak, euskara modernizatzeaz gainera, batu egin gintuela euskaldunok. Euskara baturik gabe ez gaurko euskara ez gaurko Euskalerrria ez ziren diren bezalakoak izango.

Tamalez, herri honek kitatu gabe du zor hori Mitxelenaekin eta, bide batez eta tamalgarriagoa dena, baita bere buruarekin ere.

Anjel Lertxundi



OLIVA Jesús; CAMARERO, Luis A.
Paisajes sociales y metáforas del lugar. Una exploración de la ruralidad itinerante en Navarra
 Pamplona/Iruñea : Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2003. – 163 p. – (Ciencias Sociales ; 12). – ISBN: 84-95075-89-X

La obra de estos dos sociólogos (el primero, profesor de la UPNA, y el segundo de la UNED), orientada a esclarecer uno de los temas más actuales de la sociología rural, el fenómeno de los nuevos residentes o la ruralidad itinerante, muestra rasgos analíticos y metodológicos (perspectiva *emic*, análisis de los espacios y los lugares, entrevistas en profundidad) que la acercan a otras dos ciencias afines, la antropología social y la geografía humana.

Sin embargo, el enfoque y la metodología más relevantes son de tipo sociológico: se analiza el cambio social que las poblaciones rurales de Navarra han experimentado en las últimas décadas del siglo XX, insistiendo en el análisis de variables como 'actividad', 'generación' y 'movilidad', configuradoras de la noción de cambio social.

En el prólogo, los autores nos aclaran sobre sus objetivos: *El trabajo que presentamos, sin embargo, ha tratado de recuperar el tiempo y el espacio del artesano para la maduración de los interrogantes (...). No hallará el lector un informe de diagnóstico ni una nueva propuesta de comarcalización de paisajes navarros. Nuestro interés ha sido atender a procesos de largo recorrido, a tendencias sociales que adquieren significado en el tiempo* (pag. 16).

A partir de este postulado, su investigación, fruto de un proyecto financiado por la Comunidad Foral de Navarra (1996-1999), sigue un esquema clásico en la elaboración de un informe científico:

* Una introducción que presenta los estudios más relevantes sobre la materia (las influencias de la posmodernidad y de la globalización en la experiencia y valoración del lugar, de los lugares de la ruralidad).